

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [TXISTU II](#)

Irakaslea/Profesor: **Iñaki Loroño**

Irakasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Ikas ezazu txistuarekin doinu herrikoi eta errazak jotzen, era atsegin eta dibertigarri batean, irakasleak sortutako metodoa erabilita.

Gaitasunak/Competencias

Ikasleek jarraituko dute lehen lauhilekoko irakasgaian ("Txistuka. Txistua jotzen ikasi nahi izan duzu beti? Orain duzu aukera") hasitako lanarekin:

- Partituren oinarrizko irakurketa (solfeoa, musika hizkuntza)
- Musikaren oinarrizko teoria
- Txistuaren eskalak jotzea
- Txistuaren oinarrizko artikulazioa
- Doinu errazak jotzea txistuarekin
- Ikasleak prest egongo dira musika hizkuntzaren (solfeoa) eta txistuaren ikasketa arautuekin jarraitzeko, musika eskola edo kontserbatorio batean.

Edukiak/Contenidos

- Musika irakurketaren eta teoriaren oinarrizko ezagutzak.
- Txistua ezagutzea (musika tresnari nola heldu, oinarrizko artikulazioa eta digitazioa).
- Artikulazio berriak; hala nola pikatua eta noten arteko lotura
- Oinarrizko melodiak jotzea

- Doinuak bikoteka jotzea eta beste instrumentu batek lagunduta.

Metodologia/Metodología

Metodologia oinarritzen da ikaste prozesua ikasleekin koordinatzean, irakasleak sortutako sistema baten bidez, ikasle bakoitzak bere etxean bere kabuz ikas dezan. Horretarako, melodiak emango zaizkie, eta solfeo eta txistu ariketak, paperean eta edozein gailutarako (ordenagailua, telefonoa, tableta, etab.) balio duten fitxategietan, marka eta plataforma gorabehera (Mac, Android edo Windows). Ez da informatikaz jakin behar eta nahikoa da klik egitea abiarazteko eta gelditzeko. Nahi den lekuan has daiteke, abiadurak aldatu, etab., ikaslearen beharren arabera.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Etengabeko ebaluazioa

Bibliografia/Bibliografía

Zati bat entregatzen zaie ikasleei ikasgaiaren hasieran; ondoren, ikasle bakoitzaren aurrerapen mailaren arabera, material gehiago emango zaie, modu pertsonalizatuan.